

BODY MIND & SOUL

«Voodjazz-ak handi egingo gaitu»



Davie Luhanga *Street rat*, Body Mind & Soul taldeko abeslaria.

Azken asteetan Euskal Herrian Body Mind & Soul talde malawiarra ibili da bere musika euskal ikusleei eskaintzen. 2007an Music Crossroads Southern Africa (MCSA) lehiaketa irabazi, eta ostera European barna egiten ari diren biraren baitan egin digute bisita. Zimbawe, Mozambique, Malawi, Tanzania eta Zambiako musikari gazteak bultzatzeko ekimena da MCSA, eta Afrikako gazteen kultura eta gizarte garapenerako proiektu nagusia da. HIESak kontinenteko gazteen esperantzak zapuztu ez ditzan, MCSAk tailer espezializatuak antolatzen ditu; parte hartzaileek lasai hitz egin dezakete sexualitateaz, itxaropenaz eta bizitzako gaiez.

LANDER MUÑAGORRI

BODY MIND & SOUL taldeko liderrarekin hitz egin dugu, Davie Luhangarekin, horren ezezagun egiten zaigun panorama musikal afrikarra geureganatzeko. Izan ere, malawiar hauek euren herrian zuzeneko ekitaldiak eskaintzeko instrumentuak eta ekipoa alokatu egin behar izaten dituzte. “Hortaz, zaila suertatzen zaigu geure herrian jotzea, oso garestia baita”.

Davie Luhanga da zeure benetako izena, baina badaukazu izengoiti bat ere, *Street rat* (kaleko arratoia) hain zuzen. Zer dela-eta jarri zenion zeure buruari halako izengoitia?

Izen hori aukeratzeko garaian hiru arrazoi hartu nituen kontuan; alde batetik, ez nuen pertsona ezagunek erabiltzen dituzten izen harroputz horietako bat erabili nahi, eder eta liraina izan nahi horretan. Nire burua ispilua- ren aurrean ikusten dudanean ere, horixe bera

ikusten dut, arratoi bat, batez ere nire hortzengatik. Eta kaletik nabilenean ere, azkar ibili ohi naiz, arratoia bezain azkar. Horregatik aukeratu nuen izengoiti hau, deigarria ere badelako.

Noiz eta nola sortu zen taldea?

2005. urtean sortu zen. Beste talde batzuetan ibilia nintzen ni, baina Malawin egiten den musikaz erabat desberdina zen zerbait egin nahi nuen. Afrikako kultura ezberdinetako elementuak bildu, eta jazz ukitua zuen zerbait egin nahi nuen; soinu konkretu bat lortu genuen horrela, *voodjazz*-a hain zuzen ere. Taldearen lehen urratsak, musika mota hori egiteko gogoaz zuten musikarien bila hasi nintzenez eman ziren. Denak topatu nituenean, gustura nengoen, gogobetez; baina teklatura jotzen zuen norbaiten ordez, haizezko instrumentuak joko zituen norbait

bilatu behar nuen, eta hori oso zaila da Malawin. Hasieran instrumentu akustikoe-kin hasi ginen, eta 2006an elektrikoekin.

Malawiar musika tradizionala duzue sustrai; eta afrojazz, soul-a edo reggaea tradizio horrekin fusionatu dituzue. Zer nolako harrera izan duzue zuen herrian, eta nolako European egiten ari zareten biran?

Malawin bertan, geure herrian, jendeak sekula ez du geurea bezalako musikarik entzun, baina egiten dugun lana esperimentatu eta entzun duten gutxiak geure musika gozatu eta aintzat hartu dute. European bestalde, entzuleen erantzuna orain arte oso ona izan da, geure lana eta esfortzua asko baloratzen dituzte.

Nolakoak dira europar ikusleak afrikarrekin alderatuz gero?

Malawin entzuleek ez dute taldearekin horrenbeste kooperatzen, hemen aldiz bai. European ikusleak oso animatuta egon ohi dira hasieratik, ekitaldiko parte izateak poza emango balie bezala jokatzeko dute.

Zein mezu zabaltzen duzue ikusleengan zuen hitzekin?

Egunerokotasunean oinarritzen dira gure hitzak, arimak uki ditzakeen zentzu ezberdinetan. Azken finean, nire musika eskarmen-tuaren ondorioz sortu da, bidean aurkitutako zailtasun guztien fruitua da. Mezu ugari zabaltzen dituzte gure hitzek: batez ere Afrikan eta geure herrian ikusten dugunaz hitz egiten dugu. Hala nola, gaixotasunetik nola babestu, batez ere HIESetik; familia nola babestu eta zaindu; euren etorkizunera-ko, haurrentzat eskolara joateak daukan garrantziaz; guraso zein edadeko pertsonenganako errespetuaz eta obedienciaz; gainontzekoak errespetatzeaz, era honetan erlazio pertsonal hobeak lortzeko.

“Malawin bertan, geure herrian, jendeak sekula ez du geurea bezalako musikarik entzun”

DAVIE LUHANGA, ABESLARIA

Nolakoak dira zuen zuzenekoak? Zein eratako kontzertua espero dezake ezagutzen ez zaituzten pertsona batek?

Ikuslea dantzatzeko prestatu behar da, ahalik eta gehien gozatzeko; baita mezua ulertzen saiatzeko ere.

Music Crossroads Southern Africa (MCSA) jaialdian parte hartu eta irabazle suertatu zarete. Nola jaso zenuten berria?

Ez zen gauza erraza izan, lehiaketan oso onak ziren beste hainbat talde baitzeuden; azkenean saria egokitu zitzaigula jakin genuenean, sekulako poza hartu genuen.

Txapelketa hori irabazteak atzetik igarotako nekeak xamurrago bilakatzen ditu. Nik, taldeko lider naizen heinean, argi ikusi nuen proiektu honek etorkizuna izan zezakeela halako sari garrantzitsua irabazi ostean.

MCSA jaialdiak zertan lagundu dizue Afrika Hegoaldeko gazte musikariei?

Eta gizarteari orokorrean?

Jaialdi honek gazteoi musikari hobeak izaten laguntzen digu, ikuspegia zabaltzeko aukera eskaintzen du, musika hobeto ulertzen, hobe esanda. Adibidez, talde garai-leeke *coaching* berezia daukagu, eta promozio kanpainako materialen produkzioan asko laguntzen digute. Gizarteari orokorrean, asko eskaintzen dio jaialdiak, azken finean musika ona helarazten zaiolako herriari, eta mezu garrantzitsuak iristen zaizkiolako.

Zer nolako maila dago aurkezten diren taldeen artean?

Oso altua, baina denok gara landu gabeko harribitxiak bezalakoak; musika daramagu zainetan, baina ez dugu behar den gisan azaleratzen. *Coaching*-ak horretan laguntzen digu, geure lana behar bezala lantzen, eta eman dezakegun onena ematen.

Zein egoeratan dago Afrika Hegoaldeko herrialdeetako panorama musikala?

Oso egoera positiboa da, MCSAren laguntzarekin proiektu musikal asko hazten ari da.

Zer etorkizun dauka taldeak? Zein proposamen duzue bira hau amaitzen duzuerako?

Asmo asko dauzkagu, proiektuak baditugu buruan. Urte batean edo bitan, *voody jazz*-ak handi egingo gaitu, eta horrela geure bizitzak ez dira horren gogorrek izango. Bira hau amaitzen dugunean, geure instrumentu, ekipo eta furgoneta erosi nahi dugu kontu korronte bat irekitzeaz gain. Grabazio estudio batean sar-tzea ere helburuen artean dago. ■

artez

euskara planak	euskal papergintza	itzulpenak
trebakuntza	bulego materiala	hainbat hizkuntza
hizkuntza aholkularitza osoa	postalak, agendak	zuzenketak, egokitzapenak
enpresak, udalak, merkataritza...	inprimakiak, zigiluak...	teknikoak, komertzialak...

2008ko ekainaren 22a

ARGIA

26

Luzarra, 10-2 • 48014 Deustu (Bizkaia) • +34 94 448 00 00 • www.artez.net